



OLABIDE IKASTOLA

IKASTOLAKO
ALDIZKARIA

2001eko
abendua

GURE

GAUZAK

16^{zk.}

Olabide Ikastola
Tel.: 945150 640
Postasaila 571
01080 Vitoria-Gasteiz
e-mail: posta@olabide.com

Ikastolaren ikurra Emblema de Ikastola

Aurten, Egin-dako Merkatu Ikerketaren ondorioz, Olabide Ikastolan gure ikurra eguneratu dugu. Hala ere, bere horretan diraute ikurraren funtsezko ezauzgarriek. Beraz, gure ikur berriak, gure irudiak, ikastola du oinarri eta iturri.

Adierazle argi eta sendoa. Irakurterraza, ikusgarria eta esanahi handikoa.

Alde batetik, zuhaitza, jakintzaren eta zientziaren erakusgarri. Iraganean, orain eta gero ere, zuhaitz emankorra. Zuhaitz horrek bi adar lodi ditu, batez ere elebiduna den taldearen adierazle.

Beste alde batetik, marraztu gabe egon arren, hor ageri den zirkulua. Gure ikusmenaren majiak abiarazten duen forma.

Oinarri-oinarrizko forma horrek orobatasuna, taldearekiko eta ideia batekiko lotura, berdintasuna, senidetatasuna adierazi du noiznahi, eta hala erakutsi du besarkadaren, amatasunaren, dantzaren edo besoekin asmo onenez inguratzen dugun horren bidez.

Gure-gurea den gunea, den-dena, bizi garen eta gure proiektua bizi arazten duguneko tokia biltzen duen begien besarkada.

Azkenik, oinarrian, Ikastolaren izena, diseinuz eta argitasunez irudiaren pareko den tipografiaz idatzita.



IRGAKZIA: JOSUNE MTZ. DE ALBENIZ

Como consecuencia de la Investigación de Mercado realizado para Olabide Ikastola hemos actualizado nuestro emblema, sin bien sus características esenciales siguen tan vigentes como siempre. Por lo tanto, nuestro nuevo emblema, la representa.

Un significante claro y contundente, fácil de leer visualmente, de fuerte presencia visual y de alta significación.

Por un lado, el árbol, como indicativo del saber y de la ciencia. Un árbol que ha dado, está dando y dará sus frutos. Un árbol con dos ramas gruesas como indicativo de una colectividad básicamente bilingüe.

Por otro, un círculo, que aparece sin estar dibujado. Una forma que se activa con la magia de nuestra percepción visual.

Una forma básica que en todos los tiempos ha significado la unidad, la pertenencia a un grupo y a una idea, la igualdad, la fraternidad, expresado en el abrazo, en el baile, en la maternidad,... en todo lo que abarcamos con las manos y cerramos con nuestros mejores deseos.

Un espacio que es el nuestro, un abrazo visual que lo envuelve todo, el espacio donde existimos y damos vida a nuestro proyecto.

Por último, en la base, el nombre de nuestra Ikastola, con una tipografía paralela visualmente a la imagen gráfica, tanto por su trazado como por la claridad tipográfica.

Olabide Ikastolak berriz irakaslegoaren prestakuntza eta baliabideak zabaltzen

Dagoen eskaerari erantzuna eman nahian aurten, ohitura bihurtu den moduan, Olabide Ikastolak eta bertako Arazo Funtzionaletako Kabineteak, Bartzelonako I.M.D.I.eko (Instituto Médico del Desarrollo Infantil) partaideak diren Victor Casaprima y Jorge Catalán ekarri ditu ikastaro bat barneko eta kanpoko profesionaleri eskeintzeko. Ikastaroa irailaren 5, 6 eta 7an, goizez burutu eta mediku esperienziak eta ikerlanak tresnak bihurtu ziren geunden guztioi **ARRETA KO NAHAS-TEEI ETA HIPERAKTIBITATEARI AURRE EGITEKO BALIABIDEAK ESKEINIZ IKUSPEGI NEUROFUNTZIONALITETIK IKUSITA.**

Datak kontuan izanik pozik gaude, aurten zentro guztietan ikasteurtea lehenago hasiz jaso dugun erantzuna ia 60 pertsonatakoa izan zen, ta bereziki ikastolako irakasleen parte-hartzea aipatzekoa da.

Aurreko ikastaroetara etorritako zentroetako profesionalak berriz etorri dira, eta baita berriak ere, besteak beste Odón de Apraiz, Armentia Ikastola, Presentación de María eta Samaniego Ikastetxe-koak hain zuzen ere.

Aurten bertara komunikabideak hubildu dira eta hauen presentzia azpimarratzekoa da, besteak beste han ETB, Canal Gasteiz, Euskal Irratia, Periódico de Álava, Egunkaria eta Deia izan genituen ikastaroari buruz informazioa zabaltzeko aukera emanez.

Partaideek ikastaro gehiagotan parte hartzeko prest zeudela jakinarazi ziguten eta ikastolabide horretan jarraitzeko asmotan da.

Gurasoentzat hitzaldi bat eskeini zen gai hauek zabaltzeko eta ikastolako familien parte-hartzea eskertzekoa da.

La Ikastola continuando con su deseo de innovación y de mejora oferta respuestas a los profesionales de la educación

Tal y como se ha venido haciendo los últimos 4 años y haciéndonos eco de la demanda de los asistentes al curso anterior, la Ikastola Olabide y su Gabinete de Problemas Funcionales organizó este mes de septiembre los días 5, 6 y 7 por la mañana un curso para profesionales de la Educación del centro y externos al mismo impartido por Victor Casaprima y Jorge Catalán, médicos miembros del Instituto Médico del Desarrollo Infantil de Barcelona, con los cuales viene teniendo una relación desde septiembre de 1997.

El curso fue sobre abordaje neurofuncional de los trastornos y de la hiperactividad. En el mismo, además de exponernos sus experiencias e investigaciones sobre esto intentaron dar respuesta a los problemas que planteaban l@s asistentes.

Este año, a pesar de la cercanía del comienzo del curso académico, la asistencia ha sido de alrededor de 60 personas destacando el esfuerzo del profesorado de esta ikastola por acudir teniendo en cuenta que las clases empezaban el día 10. Destacamos también la continuidad en la asistencia de los participantes de otros cursos así como nuevos centros: Ikastolas Armentia y Odón de Apraiz y Colegios Samaniego y Presentación de María además de la repercusión en los medios de comunicación novedosa hasta ahora (ETB, Euskal Irratia, Deia, Periódico de Álava, Egunkaria y Canal (Gasteiz).

La Ikastola ha recogido el deseo de los participantes por continuar con esta oferta de formación e intentará darle la respuesta oportuna.

La Ikastola aprovechó la oportunidad para que estos médicos ofreciesen una conferencia a las familias de ikastola. La asistencia y la participación de las familias fue numerosa demostrando y expresando directamente su interés por este tipo de charlas.



Omenaldiak

Olabide Ikastolari 25 urte eskaini dizkioten irakasleei omenaldia eta Begoña Etxeandiarri agurra

Homenaje a los profesores y profesoras que han dado 25 años de su vida a Olabide Ikastola y despedida a Begoña Etxeandía

IKASTURTE hasierako ekitaldiak zirela eta, egindako lana aitortu eta ondo merezitako omenaldia eskaini zitzaizen ikastolako irakasleei. Aurten, Begoña Etxeandiarri jaso zuen opari eta txalo gehien, izan ere gure artean 28 urtez jardun ondoren aurrez erretiratzeko adina heldu zaio. Begoñarekin batera, Olabide Ikastolan 25 urtez lanean aritu diren Mariam San Nicolás, Benito Jáuregui, Juan Carlos Gómez, Arantxa Ormazabal eta Jaione Aranburuzabala ere omendu zituzten.

Halako ekimenak, zenbaiten ustez itxurazkoak baino ez badira ere, landu beharrekoak dira. Omendutakoak hunkituta ikusi genituen eta lerro hauen bitartez beste besarkada handi bat bidali nahi diegu. ZORIONAK!



DENTRO de los actos de inicio de curso, tuvo lugar un merecido reconocimiento y homenaje a la labor desarrollada por el colectivo de profesores y profesoras de la Ikastola. Este año los regalos y los aplausos fueron para Begoña Etxeandía por cumplir la edad de jubilación trabajando con nosotros durante 28 años; también para Mariam San Nicolas, Benito Jáuregui, Juan Carlos Gomez, Arantxa Ormazabal y Jaione Aranburuzabala por 25 años de trabajo en Olabide Ikastola.

Son aspectos en los que tenemos que seguir profundizando, aunque a alguien le pueda parecer que son meramente formales. Les vimos emocionarse y desde aquí les enviamos de nuevo un fuerte abrazo. ¡ZORIONAK!

Txileko Gobernuko Hezkuntza Ministeritzako ordezkariak Olabide Ikastolara egindako bisitaldia

TXILEKO eta Euskadiko gobernuen artean Lankidetzaren Ituna ezartzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Euskadin antolatu zuen bisitaldiaren barruan, joan den irailaren 18an Olabide Ikastolan izan genituen Javier San Miguel jauna, Oinarrizko Hezkuntzako Programaren Nazioko koordinatzailea eta Carolina Huenchullan, Kultura arteko Hezkuntza Elebiduneko Programaren koordinatzailea. Horiekin batera, Eusko Jaurlaritzaren izenean, Miren Mateo andrea etorri zen.

Txileko Hezkuntza Ministerioak hezkuntza arautuan sartu nahi ditu indigenen hizkuntzak, alegia, Aymara, Pasquensea eta batik bat maputxea. Euskadiko hizkuntza politikaren berri zutela-eta, bertatik bertara jakin nahi izan dute zer nolako bideak landu diren Euskadiko gizarteak eskatutako euskalduntzea bermatzeko.

Javier San Miguel jaunak eta Carolina Huenchullan andreak beren esperientziari buruz jardun zuten Olabide Ikastolako zuzendaritza taldearekin, eta bide batez, haientzat interesgarriak ziren dokumentazio ugari eman genien.



DENTRO de la visita de Euskadi organizada por la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco, a fin de establecer un Convenio de Colaboración entre los dos Gobiernos, recibimos al Sr. Javier San Miguel Coordinador Nacional del Programa de Educación Básica y a la Sra. Carolina Huenchullan Coordinadora del Programa de Educación Intercultural Bilingüe el pasado 18 de septiembre, acompañados por la Sra. Miren Mateo en representación del Gobierno Vasco.

El Ministerio de Educación de Chile está planteándose con una mayor decisión la introducción de las lenguas indígenas Aymara, Pasquense y sobre todo el Mapuche dentro del sistema educativo reglado chileno. Teniendo referencias de la realidad de Euskadi, han querido conocer in situ los procesos llevados a cabo en los distintos ámbitos, para garantizar la demanda de euskaldunización de la propia sociedad vasca.

El Sr. Javier San Miguel y la Sra. Carolina Huenchullan contrastaron con todo el equipo directivo de Olabide Ikastola sus propias experiencias, y les fue entregada abundante documentación de su interés.

Visita de representantes del Ministerio de Educación del Gobierno de Chile a Olabide Ikastola

DIBERTSIFIKAZIO KURRIKULARRA

Ikasturte honetan, ikaskuntza-irakaskuntza arloan berrikuntza eta abantailak etengabe ezartzeko bidean, dibertsifikazio kurrikularreko taldea sortu dugu DBH 4. mailan.

Dibertsifikazio kurrikularra, DBH-ko titulua lortu ahal izateko beste bide bat da.

Honen helburua, ikasle bakoitzak DBH-ko gaitasun orokorrak eskuratzen joatea da.

Dibertsifikazio kurrikularreko ezaugarririk garrantzitsuena bere metodologia berria da. Metodologia honen bidez, ikaskuntza prozesua ikasle bakoitzaren ikaste estilora eta eritmorara egokitu egiten da. Ikaslearen etengabeko jarraipenean eta curriculum-osagaien egokitzapenean oinarritzen den metodologia da.

Dibertsifikazio kurrikular barnean dauden ikasleek, arte, erlijio, etika, gorputz heziketa, aukerazko jakingaita eta ingelesa, ohiko gelan ikasten dute. Dibertsifikazio gelan berriz, Hizkuntza-gizarte esparrua, esparru Zientifiko-teknologikoa eta Tutoretza saioak lantzen dituzte.

Hizkuntza-gizarte esparruan, Euskara, Gaztelania, Literatura, Gizarte eta Historiazko edukiak lantzen dituzte, Ainhoa Gonzalez de Galdeano irakaslearekin.

Esparru Zientifiko-teknologikoa berriz, Matematika, Natur Zientzia eta Teknologiko edukiak lantzen dituzte, Mari Carmen Bejarano irakaslearekin.

Bi esparru hauetan, jakingaitak ez dituzte banan-banan ikasten baizik eta, gai orokorren bidez, jakingaita guztiak edukiak ikasten joaten dira.

Aurtengo dibertsifikazio gelan, 9 ikasle daude. Metodologia honen bidez lan egin ahal izateko, baldintza batzuk bete behar dira: 16 edo 17 urteetako ikaslea izatea, ikasketarako ahalmenak izanik, Dbh-ko eritmo edo metodologia tradizionala aurrera eramateko nolabaiteko zailtasunen existentzia agerian usten duen ebaluaketa psikopedagogikoa izatea. Ebaluaketa psikopedagogikoa hau, irakasle taldea eta psikologo-orientatzailearen artean, aurrera eramaten da.

Artikulu hau, dibertsifikazioko ikasleei zuzenduta dago bereziki, kurtsu hasieratik ikasten hasi diren bezain gogor jarraitzea animatzeko. Artikuluaren helburuen artean: dibertsifikazio kurrikularra zer den guztiei zabaltzea eta, proiektu honetan murgildu garen guztien itxaropenak eta gogoak jakinaraztea.

Ainhoa Elordi D.B.H. eta Batxilergoko Psikologo-orientatzailea / Psikóloga-Orientadora E.S.O. y Bachiller.

DIVERSIFICACION PARTICULAR

Este curso, en nuestro afán por continuar en la línea de innovación pedagógica, hemos creado un grupo de diversificación curricular.

La diversificación curricular es una vía diferente para poder lograr el título de graduado escolar.

El objetivo de esta vía, es lograr que los alumnos alcancen los objetivos generales de la E.S.O.

La principal característica de ésta es su innovadora metodología. A través de la cual, se pretende adaptar el proceso de enseñanza al estilo y ritmo de aprendizaje de cada alumno. La base de esta metodología radica en el seguimiento continuo del alumno y en la modificación de ciertos elementos curriculares.

Los alumnos que realizan sus estudios mediante Diversificación Curricular, trabajan en el aula ordinaria asignaturas como: arte, religión, educación física, la materia optativa que hayan elegido e inglés. Acuden al aula de diversificación para trabajar el ámbito científico-tecnológico, el ámbito lingüístico-social y para desarrollar las sesiones de tutoría.

En el ámbito lingüístico-social, trabajan con Ainhoa Gonzalez de Galdeano, objetivos relacionados a las áreas de euskera, lengua, literatura, historia y ciencias sociales.

En el ámbito científico-tecnológico, trabajan con Mari Carmen Bejarano, contenidos referidos a las áreas de matemáticas, física, Ciencias naturales y tecnología.

En estos dos ámbitos, no se trabajan las asignaturas de forma separada, sino que, a través de temas globales se profundizan objetivos de todas las asignaturas de cada ámbito.

Este año tenemos 9 alumnos en diversificación. Para poder trabajar a través de esta metodología, hacen falta una serie de requisitos: tener 16 o 17 años y tener un informe psicopedagógico donde se plasme que, aún teniendo capacidades intelectuales para estudiar, el alumno tiene ciertas dificultades para seguir el ritmo y la metodología de trabajo tradicional. Esta evaluación psicopedagógica, la desarrolla la psicóloga-orientadora junto con el equipo docente.

El fin de este artículo es, ante todo, animar a los alumnos de diversificación curricular a que sigan trabajando como lo vienen haciendo desde el principio de curso; acercar a todos los demás las características de esta nueva forma de enseñar/estudiar y comunicar la ilusión y el entusiasmo de los profesionales que nos hemos embarcado en este proyecto.

Udazkena dela eta Haur Hezkuntza Con motivo del Otoño

Urriaren 23 an urtero bezala Haur Hezkuntzako azkenengo mailako ikasleek Errioxara egin zuten egun osorako irteera bat, bertan udazkenaren ezaugarriak behatzeko eta aztertzeko asmoarekin, honela urtaro honetako adierazgarri den fruituarekin kontaktatu zuzena izateko aukera izan zuten, mahatsa, alegia. Eta hain gertutik ardoaren gauzate prozesuan parte hartzeko parada izan zuten, mahatsondoetatik beraiek mahatsak bildu baitzuten Leza herriaren inguruetan. Azkenik Biasterin bazkaldu ondoren Ikastolara itzuli ziren.



Como todos los años los niños de último curso de Educación Infantil con el objetivo de descubrir las características de la estación del año en que se encontraban, el otoño, tuvieron la oportunidad de desplazarse hasta las localidades riojanas de Leza y Laguardia, donde los propios alumnos recogieron de las cepas las uvas, fruto característico de la época, con las que posteriormente observaron el proceso de la elaboración del vino.

2 urteko haurrak Olabide Ikastolan

Ikasturte honetan Olabide Ikastolan 2 urteko gela bat zabaldu dugu, bertan 16 ikasle ditugularik. Urriaren 1 ean ibilbideari ekin genion beraz esan beharra dago gelan, gurasoak eta ikasleak batera ikusteko aukera izan genuela, egokitze epeari beharrezkoa zitzaion tokia eskeiniz. Epe hau aurrera joan den neurrian haurrak zeharo pozik ikus ditzakegu. Jolasa izango dute baliabide metodologiko nagusia, bakoitzaren garapena gauzatzeko, afektibitate, segurtasun, onartze eta ongizate giro batean, bertan ingurune fisiko eta soziala arakatzeko aukera antzatz eskeiniko zaizkie, guzti honen euskarri euskara izanik.



Aula de 2 años en Olabide Ikastola

En el presente curso en Olabide Ikastola ha comenzado su andadura el aula de 2 años, este camino lo hemos empezado a recorrer con 16 alumnos el 1 de octubre de 2001, con lo cual hemos podido gozar de la oportunidad de ver a los niños acompañados de sus padres y/o madres durante el periodo de acogida y familiarización con todo el novedoso entorno. En la medida en que se han adaptado la alegría es la nota predominante de la clase donde el recurso metodológico más frecuente será el juego con el que comenzaran a desarrollar capacidades afectivas, de seguridad, etc. todo en un ambiente de respeto y bienestar, para poder también ofrecer un amplio abanico de estímulos a fin de que descubran el medio físico y natural y social que les rodea, todo ello teniendo como soporte el eukara.

Irailaren 25ean Lehen Hezkuntzako 2. Mailako ikasleak Biasteriko Ornitologi Parkeera joan ziren. Bertan mota guztietako hegazti eta animaliak ikusi genituen eta primeran pasa genuen.



Azaroaren 24, 25 eta 26an 2. A eta 2.eko ikasleek 3 egun pasa zituzten Barriako aterpetxean. Bertan ekintza asko egin genituen Foru Aldundiak ARABAZ BLAI programaren barruan ekarritako begiraleekin eta baita gure ikastolatik joan ziren irakasleekin ere.



Azaroaren 22an Santa Zezilia, musikariaren eguna ospatu genuen gure Ikastolan. Horretarako 5. eta 6. mailako ikasle batzuk animatu ziren eta hainbat egunetan entsaiatu eta gero, baratzako orduan dena prestatu zuten eta beste ikasle guztiei sorpresa txiki bat eman zieten.



OLABIDE KULTUR ELKARTEA

Berriz ere ikasturte berri batekin hasi gara, aurten 340 haur ditugularik. Iaz bezala, gure ekintzak hauek dira: Abesbatza, Txistu, Dantza, Lenguaiak Musikala, Antzerkialaritzak eta Musikari Hasiera. Guzti hau aurrera eramateko 17 begirale eta 6 guraso ordezkari ditugu.

Gabonak datozenek gure Abesbatzek kontzertu bat eskeiniko dute abenduaren 16an, igandea, Villodasen. Beste aldetik, Ikastolak, gabon kanpainarekin batera, antolatutako jaialdian ere parte hartuko dugu gure dantzariekin eta ez ahaztu, beti bezala, Gasteizko Olentzeroaren ibilaldiaren parte izango gara.

Hemendik aurrera gure berri gehiago izango duzue lerro hauen bidez.

Gabon Zoriontsuak igaro!!!

Un año más hemos comenzado con un nuevo curso escolar con 340 niños/as. Como el año pasado, las actividades que tenemos son las siguientes; Coro, Txistu, Dantza, Lenguaje Musical, Expresión Dramática e Iniciación Musical. Para llevar adelante estas actividades contamos con 17 monitores/as y 6 padres-madres responsables de cada actividad.

Como ya llegan las Navidades, nuestros coros ofrecerán un pequeño concierto el domingo día 16 en Villodas. Por otro lado también participaremos con los dantzaris en el festival que organiza la Ikastola con motivo de la campaña de Navidad. Y como siempre, acompañaremos al Olentzero en su recorrido por Vitoria.

A partir de ahora podréis tener más noticias nuestras mediante estas líneas.

¡¡ Os deseamos unas Felices Navidades!!

DBH ko IKASLEAK IRTEERA DESBERDINAK EGINEZ GAUZA UGARI IKASTEN ARITU DIRA

DBH 2.E ko ikasleek, Plentzian, barnetegian egoteko aukera izan zuten, aste oso batez. Urriaren 22tik 26 bitartean. Hara, beraiekin bai tutorea bai euskara irakaslea lagundurik joan ziren.

Barnetegi hauek duten gauza txar bakarra da talde bat joatea baino ez digutela onartzen.

DBH2.A ko ikasleek ere irteerako aukera izan zuten, oraingo honetan urriak 29,30 eta 31. Hauek hiru egun eman zituzten Aubixan baina kasu honetan egonaldia gisan, hau da irakasleek, oraingo honetan berriro tutorea eta euskara irakaslea, prestatutako ekintzetan parte hartzeko.

DBH 3.A,B,D eta E ko ikasleak ere bai euskara eta baita euren arteko harremanak sendotzen, aurreko kasu bietan bezalaxe, bi egun pasa izan zituzten Nafarroa aldean Urbietan herrian hain zuzen ere.

DBH 4.mailako Biologia-Geologia ikasgaia duten ikasleek Urdaibaiko paisaia zoragarria ikusteko eta hobeto ezagutzeko aukera ezin hobea izan zuten, urriaren 24ean eguna pasatzera joan izan zirenean.

Hona hemen zein ondo ibili ziren gure ikasleak ekintza desberdinak eginez :



Aitor Arana • idazlea ikastolan

Aitor Arana, Legazpi, 1963.

Hamazazpi urte zituenean sorkuntza eta itzulpen lanak egiten hasi zen. Euskal kultur-gintzako hainbat alorretan ibilia da. Irakaskuntza mundua jorratu du eta hiztegi-gilea eta esperantista da.

Bere sorkuntza lanak ipuingintzan eta eleberrigintzan eman ditu nagusiki. Besteak beste, bereak dira:

- Loaren bidez, 1990, SM
- Afrikako semea, 1991, Elkarlanean
- Ipuin ilunak, 1995, Krisailu
- Uxue eta Urtzi, 1997, Ibaizabal
- Gaueko ortzadarra, 1997, Pamiela
- Herauskorritze, 1998, Mensajero
- Atharratzeko erregina, 2000, Hiria
- Onan, 2000, Txalaparta

Pasa den azaroaren 15ean Aitor Arana idazlea, ikastolara etorri zen DBH 4.mailakoekin, bere liburua *Ipuin-entzulea* irakurri ondoren, elkarrizketa bat izatera.

Hasieran bere bizitzaz pixka bat hitz egin zuen; non bizi zen, nola hasi zen idazten... etab. Gero gure galderak hasi ziren. Lehenengo galdera izan zen ea nondik atera zituen ideiak liburu honen ipuinak idazteko. Komentatu zigun Patxi Konkordunaren ipuinaren ideia adibidez Gasteiztik atera zuela, konkordun gazte bat ikusi zuelako kartoiak biltzen, noski, gero berak ipuinei fantasia jartzen die. Beste galdera bat izan zen ea zergatik bahituta eta tratu txarrak jasotzen zituena emakumea zen eta ez gizona eta bere erantzuna edo arrazoia izan zen euskarazko liburuetan gehien bat beti gizonak protagonistak direlako, horregatik ipuin honetan aldatzeagatik protagonista emakumea da.

Bukatzeko, Aitorren aholku bat: nahiz eta idaztea gustatu, hobe duzue ikasten jarraitu zeren idazlea izanik ez da diru gehiegirik irabazten.

ENERITZ BENGOA / DBH 4.E

Berriz Alemanian



Abuztuaren 28an, iaz DBH 4.mailan egondako 30 ikasle eraman genituen Alemaniara, Wurtzenera hain zuzen ere. Ohitura denez azken urte hauetan, ez dugu gehiegi sakonduko trukaketa honen arrazoietan ezagunak baitira. Bertan irailaren 12rarte egon ginen trukaketa eginez eta alemanez mintzapraktika egiteaz gain ekintza desberdin eta bisita ugari egiteko aukera izan genuen.

Ikasleek izandako portaeraz arto bueltatu ginen eta ondo egon eta pasatzeaz gain izugarri interesgarria iruditzen zaigu honelako ekintzak bultzatzea.

Dena den, gogoratzen dizuegu urrian datorren ikasturtean 02-03an, bisita hau bueltatuko digutela Alemaniako ikasleek.

El 28 de agosto partimos hacia Alemania para una vez más realizar con 30 alumnos que el año pasado cursaron 4º de Secundaria el intercambio que para todos es ya bien conocido; por eso no entraremos en detalles. Con este grupo permanecemos en Alemania hasta el 12 de setiembre y nuestros alumnos además de asistir a las clases con sus hermanos alemanes asistieron a unas clases que se prepararon exclusivamente para ellos, y pudieron disfrutar de diferentes actividades así como interesantes visitas.

Podemos decir que regresamos orgullosos del comportamiento de nuestros/as alumnos/as y que desde luego nos parecen actividades que no se pueden dejar escapar.

Queremos aprovechar para recordaros que nuestros hermanos alemanes de Wurtzen nos devolveran la visita en octubre del 02-03.



Una vez más en Alemania

OLABIDE KIROL ELKARTEA

Olabide Kirol Elkartearen denboraldi berri bati gogor ekin diogu. Egunez egun gauzak hobetzeko asmoarekin gatoz, denon artean Olabideren izena harrotasunez gorai patzeko.

Asmo horiek direla eta, aldaketa batzuk egon dira 2001 / 2002 denboraldi honetan. Lehenengo Elkartearen izena osotzea izan da, hots, Urgatzi soilik deitu beharrean Olabide Kirol Elkarte deitzea, gure taldeek etxetik kanpo jokatzen dutenean, besteek, zein ikastetxetik datozen jakin dezaten. Beraz, aldatu "chip"-a eta ekin izen berria erabiltzeari.

Elkartearen koordinazioari dagokionez berri, aldaketa interesgarria egon da. 2 koordinatzaile egotetik 3 egotera pasatu da, hauetako bat entrenamendu eta partiduen funtzionamendu egokiaz arduratuko delarik.

Gaia aprobetxatuz, eskerrak eman nahi diogu Silvino Baigorri-ri 3 urtez elkartearen hobe egin duen lan guztiagatik.

Bestalde, judoko parataideek ikastolan bertan entrenatu ahal izango dute tatami berriari esker eta futbolekoek ere aldagelatan egin diren berrikuntzez gozatu ahal izango dute. Olabide Kirol Elkarteoko gazteenek aldiz, orain arte baino kirol ezberdin gehiago praktikatzeko aukera ematen dien ekintza berri bat dute.

Olabide Kirol Elkartearen denboraldi berri bati gogor ekin diogu. Egunez egun gauzak hobetzeko asmoarekin gatoz, denon artean Olabideren izena harrotasunez gorai patzeko.

Para lograr este objetivo la asociación ha cambiado ciertos aspectos. El primero de ellos ha sido el cambio de nombre. De ahora en adelante pasará a llamarse Olabide Kirol Elkarte, con el fin de que cuando se juegue fuera, el resto sepa a qué centro escolar pertenecemos. ¡Ya sabéis, empezar a llamar a la Asociación por su nombre!

En cuanto a la Coordinación ha habido un cambio significativo. Ha aumentado el número de coordinadores en uno, quien se encargará de supervisar los entrenamientos y partidos para que todo funcione correctamente.

Aprovechamos para dar las gracias a Silvino Baigorri por la dedicación a la Asociación durante estos tres años.

Por otro lado, hay algunas secciones que también han variado algo. Por ejemplo los participantes de judo podrán entrenar en el tatami gracias al tatami nuevo o los futbolistas podrán gozar de las mejoras de los vestuarios. Los más jóvenes cuentan con una nueva actividad en la que podrán probar distintos deportes.

Ayaia Colunga,

Espainiako junior txapelduna jautzian

Olabide Kirol Elkarteak zazpi domina lortzen ditu. Erika Fernández de Eribek, brontzea eta Maestrok urrea haur-kategorian.

2001eko abuztuaren 1ean, honako titular honekin aurkitu ginen. Agian garai horretan oporretan zineten eta ez zitzaizuen iritsi berri ona, beraz ez dugu aukera hau galdu nahi izan eta hemen aurkezten dizuegu.



AMAIA COLUNGA, campeona de España junior en salto

Olabide Kirol Elkartearen denboraldi berri bati gogor ekin diogu. Egunez egun gauzak hobetzeko asmoarekin gatoz, denon artean Olabideren izena harrotasunez gorai patzeko.

El miércoles 1 de agosto del 2001 nos encontramos con este titular en El Correo. Por si en esa fecha no os llegó esa noticia nos hemos sentido orgullosos de mostrarosla, aquí en Gure Gauzak.

I K A S L E E N T X O K O A :

Maiden Etxagibel Batx. 2D

"Ez nau izutzen negu hurbilak uda berezko beroan dakidalako irauten duela orinak ere geroan"

BARKAIDAZUE

Barkaidazue errealtatea zer den ez jakiteagatik.
Barkaidazue berdez jantzitako Jainkoan bakarrik sinesteagatik.
Barkaidazue berriz ere edateagatik, negar egiteagatik, ihes egiten saiatzeagatik, gezurrak esateagatik.
Barkaidazue debekaturik dauden jokuetara jolasteagatik, ametsetan ibiltzeagatik, maitatu behar ez dudana maitatzeagatik.
Barkaidazue berandu izateagatik, jadanik mundu honetara etorri naizelako.
Barkaidazue testu hau idazteagatik.

BARKAIDAZUE BARKAMENA ESKATZEAGATIK

Behar bada ez orain, behar bada ez bihar, behar bada ez hemendik bost urtetara, baina egunen batean, guztiz bakarrik sentituko zarete, ni sentitzen naizen bezala, eta mundua ez ulertzeagatik, barkamena eskatuko duzue, belauniko jarriz, zoriotsua izan nahi dut! oihukatzen duzuen bitartean.

Noraezean ibiliko zarete kale estuen artean, izozturik, zer egin jakin gabe. Bizitzako amaigabeko bideetatik galduko zarete, ni galdu naizen bezala, eta barkamena eskatuko duzue, belauniko jarriz, zoriotsua izan nahi dut! Oihukatzen duzuen bitartean.
Zoriontsuak izango zarete, zuen bihotza ura bezain garden bihurtzen denean, zuen bizitza zoriaren menpe uzten duzuenean, begiak ikusteko eta ez sumatzeko soilik eabiltzen hasten zaretenean...
Zoriontsu izango zarete... ZORIONTSU...

Olaia Bronte DBH 1A

Allá en el horizonte se oye el trueno que anuncia la llegada de una tormenta de primavera.

Allá en la selva se oyen rugir a los animales anunciando la llegada de una tormenta de primavera

Allá en el campo una chicharra sofoca su canto, porque se ha percatado de la llegada de una tormenta de primavera

Allá lejos en un parque el viento mueve las hojas de los árboles Anunciando la llegada de una tormenta de primavera.

Llueve, llueve, llueve ...

MARRAZKIA:
PAOLA ELIZALDE
DBH 3.B



► IKASLEEN TXOKOA:

GABON KANTA
Olentzero joan zaigu

Olentzero joan zaigu
Mendira lanera
Intentzioarekin ikatza egitera.
Aditu duenean, Jesus jaio dela
Lasterka etorri da, berri ona ematera

Horra, horra, gure Olentzero
Pipa hortzian duela eserita dago
Kapoia ere baitu, arraultzatsuekin
Bihar merendatzeko botila ardoakin (bis)

Olentzero buru handia
Entendimentuz jantzia
Bart arratsean edan omen du
Bost arruako sagia
Hori sabel handia tralalalala....(bis)

Inolaz ezin dugu
Olentzero hase
Bakarrik jan dizkigu
Hamar txerri gazte.
Saieski eta solomo
Makina bat este
Jesus jaio da eta alaitu zaitetzte.
Horra! Horra!